

# **FUNTSEZKO JARDUERAK**

## **GURE ENPRESAREN JARDUERAK**

### **PRODUKZIOZKO JARDUERAK**

Gure enpresako funtsezko jarduera aplikazio honen prestakuntza eta prozedura dira. Hasteko, aplikazio hau diseinatzeko garaian, enpresako kide bakoitzak bere ideiak emango ditu bai diseinu eta baita funtzionameduaren harira, eta gero, elkarrekin adostuko genuke nola sortu.

Honenbestez, ekoizpen fasean sartuko ginateke. Kasu honetan, kide bakoitzaren eginkizunak zehaztuko genituzke, lehen erabakitako diseinua aurrera eramateko. Horretarako, kontutan izango ditugu hizkuntza ezberdinak hitz egiten diren herrialdeetako ohiturak eta egoerak, erabiltzaileek beste herrialdeetako informazioa errazago eskura dezaten. Ondoren, aplikazioaren muina antolatu eta funtzionatzen jarriko genuke, itzultzaile automatikoarekin.

Azkenik, aplikazioa ondo prestatuta dagoenez, jada eskuragarri izango dute denek Google Play Storen.

### **ARAZO-KONPONKETAKO JARDUERAK**

Alde batetik, aplikazioa diseinatu edo ekoizterako garaian, arazoren bat jazoz gero, elkarrekin batuko gara eta ahalik eta azkarren konpontzen saiatu. Horretarako, arazoaren berri emango diogu elkarri eta akatsa bilatuko dugu. Gure esku balego, aldaketaren bat egingo genuke, eta bestela, inguruko beste norbaiti laguntza eskatuko genioke.

Bestalde, behin aplikazioa eskuragarri dagoela erabiltzaileek eragozpenak balituzkete aplikazioa erabiltzerako garaian, jakina da akats nagusia non egon den aurkitu behar dela eta hori hobetu. Akats ezberdinak behin eta berriz gertatuz gero, ezinbestekoa izango da gure aldetik egunerazio bat prestatzea.

Kasuren batean salaketaren bat jasoz gero, bere arazoia irakurriko genuke eta kontuan hartu baina ez genuke konpondu beharreko arazotzat hartuko.

## **PLATAFORMAKO EDO SAREKO JARDUERAK**

Bide batez, plataforma hau martxan egoteko eta sustatzeko jarduerak ere nahitaezkoak izango dira. Aplikazioko jarduera nagusiak, adibidez, hizkuntza ezberdinen garapena, audio kalitatea eta informazio gehigarriak izango dira batik bat. Beraz, egunerazio ezbedinen bidez denborarekin jarduera hauen hobekuntzan zentratuko gara.

## **KANPOKO ENPRESAREN ESKU UTZITAKO JARDUERAK**

### **PUBLIZITATEA**

Nahiz eta publizitatea gure enpresaren jardueratzat har genezakeen, kanpoko enpresa baten esku utziko dugu. Gure gomendioak eta nahiak kontutan hartuko dituzten arren, beraiek izango dira jarduera honen funtzionamendua eramango dutenak.